


ATXURIKO MIRARIA

Gidoia

171 hitz



Bilbotar bromazale batzuek ohar hau iragarri zuten aldizkari batean:

“Atzo arratsaldean Elena Betolaza Gordoia andrea hil zen, 90 urte zituela (Goian Bego). Herrena izanik, dirutza handia utzi du Bilboko herrenen artean banatzeko. Diru honen partizioa bihar eguerdiko hamabietan egingo da, Atxuriko Kale Nagusiko 39. atarian, Betolaza andrea zenaren etxe aurrean,


hain zuzen”.

Heldu zen eguna. Atxuriko etxe hartako atarian mahai bat eta hiru gizon ageri ziren. Goitzxo hasi ziren herrenak kalean agertzen. Gehienak makulu birekin eta hanka bat zintzilik zutela zetozen; ipurdi gainean erdi tatarrez zetozenak ere baziren; baita inork bultzaka eramanda gurditxoetan zetozenak ere. Esanda zegoen ordurako... kale guztia herrenez beterik.

Atariko gizonak, diru-banaketa hastear zegoela-eta, atea itxiko zutela adierazi zuten. Itxi zuten, ba, atea eta geroxeago berriz zabaldu zutenean, tximista baino azkarrago, zer atera handik eta... zezentxo bat!

Hango iskanbila! Amen Jesus batean garbi-garbi gelditu zen kalea, ziztu bizian irten baitziren korrika herren guztiak, makilak bertan behera utzirik.

Batzuen ustez miraria izan zen gertatutakoa: zezena atera eta berehala sendatu zirelako herren guztiak. Gertaera honi “Atxuriko Miraria” esaten diote orain.



Kirikiño, *Abarrak* moldatuta. *Giltza. Hizkuntza eta Literatura 2* liburutik hartuta